



ANTSOAINGO, BERRIOBEITIKO, BERRIOZARKO, ITZAKO ETA TXULAPAINGO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Deialdia, hautaprobe bitartez izangaien zerrenda bat osatzeko, familia-langilea lanpostuan aldi baterako kontratuarekin aritzeko, Antsoaingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen zerbitzura

1.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da izangaien zerrenda bat osatzea, hautaprobe bidez, Antsoaingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean familia-langilea lanpostuan aritzeko, aldi baterako kontratuarekin, lan edo administrazio erregimenean, premien arabera. Deialdi hau egingo da Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan, 42.2 d) artikuluan, aldi baterako langileen hautapenari buruzkoan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta deialdiaren oinarrietan ezartzen denaren arabera.

1.2. Izendatuen eginkizuna izanen da Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) premia duten pertsonen sostengua eta laguntza ematea bai pertsonala, bai etxekoa, bai teknikoa, bai psikosoziala, baita haien mailaren eta kategoriaren barrenean ematen zaien beste edozein ere.

Eginkizunok gauzatzeko, ibilgailu partikularra eskuarki erabili beharra ekar lezake, Mankomunitatea osatzen duten entitateen lurralde esparruko etxetara joateko, Zerbitzuari lotutako laguntza emateko.

1.3. Lanpostua D mailako lansariez hornituko da, uztailearen 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako lansarien behin-behineko erregelamenduan eta gainerako xedapen osagarrietan erabakitakoaren arabera; bestetik, Mankomunitateak une bakoitzean ezarri eta plantilla organikoan jasotzen diren osagarriak izanen ditu.

1.4. Lanaldiaren erregimena zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta eskumena duten administrazio organoek edozein unetan aldatu ahal izango dute.

2.- Baldintzak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaien baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille edo enplegu-hobekuntzako eskatzaille gisa izena emanda egotea.

b) Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste edozein estatu kideakoa izatea. Orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuakotako herritarren ezkontideek hartzen ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izaki, haien kontura biziz gero. Orobat





aplikatuko zaie, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio librea onartzen duten herrialdeetako biztanleei.

c) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

d) Mendekotasuna duten pertsonen arreta egiteko teknikariaren, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariaren edo laguntza sozio-sanitarioa emateko teknikariaren titulua izatea, edo horien baliokidea, edo mendekotasuna duten pertsonen arreta sozio-sanitarioa ematearen gaineko profesionaltasunaren ziurtagiria izatea (Kodea: SSCS0208), edo arreta sozio-sanitarioa etxean ematearen gainekoa (Kodea: SSCS0108) edo etxez etxeko laguntzako laguntzailearena (Kodea: SSCS30) o etxez etxeko laguntzako laguntzailearen kategoriarako salbuespeneko lanbide gaitzaren ziurtagiria, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emana edo gizarte zerbitzuetan eskumena duten autonomia erkidegoek zehaztutako beste erakunde publiko batek edo horien baliokidea, eta horrez gainera, Eskola Graduatua, edo DBHko Graduatua, edo Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua, edo Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua edo titulu baliokide bat izatea, edo eskuratzeko moduan egotea, deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean. Horrenbestez, profesionaltasun ziurtagiria duten izangaiek bi baldintzak batera bete beharko dituzte, hau da, profesionaltasun ziurtagiria izatea, bai eta eskola-graduatua, edo DBHko graduatua, edo lehen mailako lanbide-heziketakoa edo oinarrizko lanbide heziketakoa edo titulu baliokidea ere.

Atzerrian lortutako titulua izanez gero, epe hori betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.

e) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetik berezia ez izatea.

Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek frogatu beharko dute beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

g) B motako gidabaimena indarrean izatea.

2.2. Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoen kasuan, itunaren frogagiria aurkeztu beharko da.

2.3. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak, bai eta hautapen prozesuak eta kontratazioak iraun bitartean ere. Gerora horietakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da deirik ez egiteko, harik eta arrazoi hori desagertu arte.

2.4. Hirugarren oinarrian xedatutakoa izan ezik, hautaprobak gainditzen dituzten izangaiek frogatu beharko dituzte betebeharrak horiek, 7. oinarrian aurreikusitako epe eta moduan.





3.- Eskabideak.

3.1. Deialdi honetan parte hartzeko eskabidea nahitaez aurkeztu beharko da telematikoki, zortzi egun naturaleko epean, deialdi hau mankomunitate honen webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erregistro elektronikoko bidez, mankomunitate honen egoitza elektronikoren bidez (<https://sedeelectronica.manserso.org/>), eta dagokion izapidea erabiliz.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, "administrazioek ezartzen ahalko dute nahitaezkoa dela bitarteko elektronikoen bidez jartzea harremanetan, bai prozedura batzuetarako, bai eta, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo egiaztaturiko bertze arrazoiren batengatik, behar diren bitarteko elektronikoez baliatzeko aukera duten pertsona fisikoen zenbait kolektiborentzat ere".

Halaber, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/2024 Foru Legearen 27. artikuluan (Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako hautapen prozesuei buruzko xedapenak), hau ematen da aditzera: "Nafarroako administrazio publikoei ahalmena ematen zaie Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuen deialdietako eskabideak eta gainerako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkez daitezela eskatzeko".

3.2. Eskabide horiek I. eranskinean agertzen den eredu normalizatua bete beharko dute, behar bezala beteta eta sinatuta, eta, bertan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

3.3. Eskabidea behar bezala beteta eta sinatuta aurkezten ez dutenak ez dira deialdian onartuko, eta jarduketa guztiak baliogabetuko dira, hargatik eragotzi gabe parte hartzeko eskabidean faltsukeria egiteagatik izan dezaketen erantzukizuna.

3.4. Desgaitasun aitortua duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izango dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera desgaitasuna dutela frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, eskumena duen organoak emandakoa.

3.5. Baldintzak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte gainditu duten izangaiek, deialdi honen 7. oinarrian aurreikusitako moduan eta epeetan.

4.- Onartuen eta baztertuen zerrenda.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Mankomunitateko lehendakariak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzeko, zerrenda webgunean argitaratzeko aginduko du, eta proba non, noiz eta zer ordutan hasiko den adieraziko du.

4.2. Onartuen zerrendan agertzea ez da aski ebazpen honen bitartez abiatzen den prozeduran eskatutako baldintzak betetzen direla onartzeko. Hautapen prozedura gainditu





eta dokumentazioa aurkeztutakoan, baldintzaren bat betetzen ez dela ikusiz gero, izangaiek prozeduran parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

4.3. Izangai onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzearekin egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.b) artikuluari jarraituta.

5.- Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Elena Ugarte Páez, and. Mankomunitateko burua.

Epaimahaikidea: Silvia Garcés Asurmendi, and. Mankomunitateko langileen ordezkaria.

Epaimahaikidea: Sagrario Elía Arbizu, and. Mankomunitateko familia-langilea.

Mahaikide-idazkaria (Hitzarekin baina botorik gabe): D. Alberto Bermejo Adrián, jn. Mankomunitateko idazkaria.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da, buruak deialdia eginda, eta eratu eta jardun ahal izateko kideen gehiengo absolutuak agertu beharko du gutxienez.

5.3. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

5.4. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan edo denetan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emango diote laguntza epaimahaiari.

5.5. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo deitzaileari horren berri emango diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean, 23. artikuluan, parte ez hartzeko aipatzen diren egoeraren batean badaude.

5.6. Izangaiek mahaikideak errekusatu ahal izango dituzte Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean, 24. artikuluan, ezarritako moduan eta baldintzetan.

6.- Oposizioaren garapena.

6.1. Proba bakoitzerako deialdi bakarra egingo da eta izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute eta, eskatzen bazaie, erakutsi egin beharko dute, bestela, kanporatu eta baztertuko baitira, salbu eta zuzenbidean onarturiko beste moduren batean nor diren egiaztatzen badute egintza horretan bertan. Probetan oharretatik kopiatzeak eta beste edozein iruzur egiteak berehalako kanporatzea ekarriko du, jarduketa penalak deusetan galarazi gabe, hala behar bada.

Halaber, agertzen ez diren izangaia kanporatuta geldituko dira.

Hautapropa egiteko, denborak eta baliabideak ahal bezala moldatuko dira desgaitasuna duten eta hala eskatzen duten izangaientzat, haien eskabidean adierazi dutenaren arabera.





6.2. Oposizioak proba bakarra izango du.

Idatziz erantzun beharrekoa, epaimahaiak hasi aurretik erabakiko duen denboran. Aukeran zenbait erantzun dituzten galderak izanen dira, test modukoak, II. eranskineko gai-zerrendari buruzkoak. Erantzunetatik bat bakarra izanen da zuzena. Proba hasi baino lehen, zehaztuko dira proba baloratzeko irizpidea eta erantzun okerren penalizazioa, zenbait erantzun-aukera dituzten galderetarako. Gehienez ere 20 puntu emanen dira. Bazterturik geldituko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

6.3. Erabiliko den sistema plika itxiena izango da. Lehenengo probako zuzenketak amaitu ondoren, epaimahaiak Mankomunitatearen webgunean argitaratuko du lortutako behin-behineko kalifikazioen zerrenda, eta plikak jendaurrean irekitzeko tokia, eguna eta ordua ere adieraziko ditu.

6.4. Plikak ireki ondoren, izangaiak lortutako puntuazioak Mankomunitate honen webgunean argitaratuko ditu epaimahaiak, eta behin-behineko kalifikazioa argitaratu eta hurrengo bi egun naturaleko epea izango du interesdunek beren eskubideen alde egokitatzat jotzen dutena telematikoki alegatu ahal izateko, horretarako gaitutako izapidearen bidez.

7.- Probak gainditu dituzten izangaien zerrenda eta agirien aurkezpena.

7.1. Proba amaitutakoan eta alegazioak ebatzita, halakorik balego, epaimahaiak Mankomunitatearen webgunean argitaratuko du gainditu duten izangaien proposamena, oposizio lortutako azken puntuazioaren arabera, handienetik txikienera ordenatuta, eta Mankomunitateko buruari bidaliko dio, aurreko zerrendarekin eta espediente osoarekin batera.

Izangairen baten edo gehiagoren arteko berdinketarik suertatuz gero, zozketa bidez erabakiko da hurrenkera.

7.2. Lehendakariaren ebazpen bidez, gainditu duten izangaien zerrenda onartuko da, puntuazioaren arabera, handienetik txikienera. Zerrenda hori Mankomunitatearen webgunean argitaratuko da.

7.3. Zerrendan dauden pertsonen deialdia egiten zaienean eta kontratatu aurretik, deialdi honetan eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten eta oraindik aurkeztu gabe dauden agiriak aurkezteko eskatuko zaie, bai eta Mankomunitateak eska ditzakeen gainerako agiri osagarriak ere.

7.4. Eskatutako dokumentuak aurkezten ez dituztenek, aski justifikatutako ezinbestekoetan izan ezik, eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenak kanporatu egingo dira aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrendan, eta deialdian parte hartzeagatiko eskubide guztiak galduko dituzte; betiere, parte hartzeko eskaera faltsutzeagatik legokiekeen erantzukizuna deusetan ukatu gabe.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintza horiek, eta hautapen prozeduraren aldian eta kontratazioak iraun bitartean ere bete beharko dira.





7.5. Zerbitzu-beharren arabera, aldi baterako kontrataziorako onartutako izangaien zerrenda, handienetik txikienera ordenatuta, 2027ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, salbu eta aurretik familiako langile plaza bat lan-araubide finkoan edo funtzionario-araubidean hornitzen bada. Kasu horretan, baldintzak bete beharko dira, eta Mankomunitateko lehendakariaren ebazpen baten bidez luzatu ahal izango da.

Aldi baterako kontrataziorako onartutako behin betiko zerrenda hori kudeatzeko irizpideak eta, halakorik bada, aldaketak, Mankomunitate honetako iragarki-taulan jarriko dira (Kaleberri kalea 12, Berriozar).

Zerrenda hau onartzen denean jarriko da indarrean, Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpen baten bidez, eta, halakorik ez badago, aurreko senideen zerrenden mende egongo da, zerrenda indarrean dagoen bitartean.

8.- Jarduketaren publikotasuna.

Mankomunitatearen web-orrian (www.manserso.org/empleo-publico) argitaratuko dira proben deialdiei eta kalifikazioei buruz epaimahaiak ematen dituen ebazpenen informazioa eta haren jarduketaren gaineko informazioa, oinarri hauetan web-orrian argitaratzekoak direla ezarritako erreferentzia guztiak, baita interesdunentzat jakingarri den guztia ere.

9.- Datuen babesa.

Tratamenduaren arduraduna: Antsoingo, Berriobitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Datuak babesteko ordezkaria: dpd@manserso.org.

Helburua: Langileak hautatzea eta deialdiko lanpostua betetzea.

Oinarri juridikoa: Datuak Babesteko Erregelamandu Orokorraren 6.1.c) artikulua (tratamendua beharrezkoa da, tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-betebeharra betetzeko). 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

Datuak gordeko diren denbora: datuak aipatu helburua betetzeko behar den denboran edukiko dira, eta Mankomunitateak haien tratamenduaren ondoriozko erantzukizuna izan dezakeen bitartean gordeko dira. Orobat, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio arauak bete beharko dira.

Datu-hartzaileak: datuak epaileei nahiz auzitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeria betez, eta deialdian adierazi bezala emanen dira argitara.

Eskubideak: Interesdunak beren eskubideak baliatzen ahal dituzte Mankomunitatearen egoitzan eta datuak babesteko ordezkariari idatziz (dpd@manserso.org).





Halaber, interesdunek erreklamazioa aurkezten ahal dute Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, eskaera idazki bat bidaliz haren helbidera (Jorge Juan kalea 6, 28001 Madril), edo egoitza elektronikoa honetara: www.agpd.es.

10.- Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka, honako errekurtso hauetako bat aurkezten ahalko da, hautara:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtutako egintza edo erabakia jakinarazten edo argitarazten denetik hasita.

Berriozarren, 2026ko ekainaren 11an.- Mankomunitateko burua, Elena Ugarte Páez.

